

KURIK kurikan (editoriala)



Urteak dira Lekeition azken aldizkaria atera zena; batzuk melena zuten oraindik. Orduan, Aldundiak ordainduta, liburu polita argitaratu zen eta historialari adituak lan egin zuten. Oraingoan lekeitiarrak ari gara lanean -sasoia zen- eta zuok liburu hau eskuetan izateko, handik eta hemendik atera behar izan dugu astia. Ez gabilta dagoeneko aitzakia bila, astirik ez izanaren estrategia erabiliz, baina ez ezazue ahaztu profesionalak lanpetuta ibili direla oraingoan.

Kurik, a zelako izena! Azkue handiak bere hiztegia dio kurika umeen jokoa dela (vale-ka edo ezkutaketa), baina Lekeition badu hitz honek beste esan

nahi bat Euskaltzaindiak halako baten hiztegia jasoko duena “mirar con disimulo de una cerradura, ventana, etc”. **Ate zuloatik ikusten da...**

Kuxkuxean ibiltzea denoi gustatzen zaigu -zeinek ez du “Sálvame” programa ikusi-. Zoritxarrez, Historiak ez du sekula honen arrakastarik izan. Aspergarria, serioa... ez du inoiz jenderik harrapatu. Halandabe, aldizkari honek, historia landu arren, ez du inor gogaitu nahi; uste dugulako informatzea ezinbestekoa dela, baina dibertitzea utziezina. Gure aldizkaria, bere izenak dio, KURIK bat da gure historiari, kurika egindako begirada bat, jakiteaz gain dibertitzea be badelako gure nahia. Historian eta ondarean zeharreko ibilbide honetan katu baten laguntza izango dugu. Kurik du izena eta berak erakutsiko digu gure iragana. Ezagutuko duzue, ez da makala!

Helburu nagusia, noski, ondarea ezagutaraztea da. Ondareztat hartuz monumenturik esanguratsuenetatik hasita gauzarik txikienera artekoak, aspaldiko kontuak eta oraintsuagokoak, ikusi eta ukitzeko modukoak direnak eta bihotzez besterik sentidu ezin daitezkeenak, azken baten, neurri handi batean, sarritan konturatu barik, geure-geureak ditugun modu bateko edo besteko lekeitiar egiten gaituzten gauza eta kontuak. Guzti hori, gaur esaten den legez behin balorean jarrita -ez da aintzat hartzen ezagutzen ez dena- babesteko asmo. Ondare materiala eta inmateriala, dena, estimatu eta babestu behar dugulako.

Poetikorik gura; gure ondarea emari handiko ibai da -Amazonas hortik ibiliko da-, baina gutxitan edan dugu bertatik. Gure asmoen artean, metaforarekin jarraituz, trago eder bat jotzea dugu, argitaratu gabeko lanak eta dokumentuak zuoi erakutsiz. Aldi berean, Lekeitiario in-jineruz beteta dagoela aprobetxaturik, eskertuko genituzke irakurleen lanak honen ondoren atera asmo ditugun aldizkariaren hurrengo zenbakietarako. Denon artean -yes, we can- askoz errazagoa izango da.

Lehen zenbaki hau indartsu dator (hala uste dugu behintzat), inoiz ikertu gabeko kontuekin eta gainera irudiz bete.

Ale honetan eta gainerakoetan ahaleginduko gara gai bat bereziki jorratzen, aurtengoan eskolak dira gai “izarra”. Gauzak horrela, Ikastolak bere 50. urteurrenean orain arteko eta gerorako asmoak dakartzkigu eta, hauekin batera, eskola publikoak bere historiaren berri eman digu.

Olio sailduaren bitartez Carlos enperadorearen eta bere seme Felipe II.aren garaian lekeitiar batek bizi izan zituen andantza harrigarriak ezagutuko ditugu. Sinestezina!

Tinak, upelak, lumera, baleazaleak be ezagutzeko aukera izango dugu beste artikulu batean eta, gainera, balio handiko tinen ondare honi buruzko informazioa erakutsiko dugu. Berri fresko-freskoa.

Eztizale izan edo ez, ezin izango duzu leitu barik utzi gozogleen gaineko artikulua. Bertan, konpitteruen historia, errezetak, ... zer ez! Iku-siko duzenen ez zirklopedia txiki bat da.

Futbola duzula gustuko, Zirimiri taldea duzu gure lehen ostikolari taldea. Ez zirelako entrenatzen, bestela aparta paretik!

Antzarak perratzen artikuluar buruz, Pulitzerra irabazteko gauza dela baino ez dugu esango.

Independentzia Gerra, Espainiakoa, ez Euskal Herrikoa, erabili izan dugu Lekeitioko artxiboko dokumentu super garrantzitsu bat erakusteko. Bide batez Agustín Ibañez de la Rentería aurkeztuko dizuegu.

KURIK-en gure artistak erakusteko gogoia daukagu. Oraingoan Xabier Gezuragaren Lekeitioko zeruak erabiliko ditugu eta gu geu ere artista bihurtuko gara. Ea collage hori gustuko duzuen.

Zineak be badu bere lekua. “Las inquietudes de Shanti Andia” pelikula dakargu, ez guk nahiko genuen bezala, baina dagoenean bon eta ez dagoenean bon bon.

Literaturari txokotxu bat eskaini diogu, eta Azkue jauna, zelan ez, goratuko dugu bertan. Miren Agur Meaberen *ipuintxu bat* ere badakar-gu, dena ez da “zaharra” izan behar eta.

Ezin amaitu gabilta, hemerrotekako artikulua bat, zazpi akatsak, artxiboko kontuak, liburuen erreseinak, kanta kantari, urtekaria eta manikulak (zer dan hori?) osatzen dute aurtengo alea. Eskerrak emateko ordua heldu zaigu.

Babesleak eta laguntzaileak:

Lekeitioko Udaleri gagan diruez gain, konfidantza eta ordaindu ezin diren laguntzak eman dizkigulako.

Euskarazko orrazia pasatzen Jon Mikel Seijok, Mitxel Kaltzakortak, eta bereziki Koldo Ruiz de Munainek, aristokrata abizen eta guzti, lagundu digute. Akatsak geureak dira.

Marraskilari bikainak izan ditugu: Jon Zubiaurrenenak, azala eta katuak; Sara Gezuragarenak kamaleoiak eta Bittor Txakartegirenak, *Ametsa eta Lekeiti, cuna de cerebros*.

Azalaren diseinatzailea, Iñigo Zabala, ez dirudien arren ondarrutarra. *Sagarrik* eta gehiago ekarri dizkigu Miren Agur Meabe idazle apartak. Xabier Gezuragak bere lanaren zati bat eman digu eta gu, horrekin, *zeruan*.

Maite Garamendi Lekeitioko artxiboko arduradunari, beti laguntzeko prest. Orrialdeok gauzatzeko ageri ez den gauza askoren ekarlea.

J.J. Bakedano, Celina Ribechini eta Igone Etxebarria, jakintsuei.

Ikastola eta Eskolari, gure hezkuntzaren zaindari.

Kiñukakoei, beraien gizagaineako lanarengatik.

Eta amaitzeko, familiakoei, -Txitxi, zu be familiakoa zara- izan duten pazientziagatik.

Bapezleak:

Euskal Gobernua, Bizkaiko Foru Aldundia eta Ondarroako Udala (albo herri honetatik ekarritakoa da *bapezle* hitz xelebrea).

Eskerrak zuri ere irakurle. Guk egiten beste gozatzen baduzu, irribarre batekin itxiko duzu KURIK apalean. Hori izango da zure eta gure poza. Goza, beraz, KURIKez.

Postdata

Milaka argazki erabili izan ditugu aldizkaria edertzeko eta dotoretzeko eta denen jatorria erakusten ahalegindu bagara ere baliteke baten bat ahaztu izana. Bestalde argazki edo grabauren baten kopirrait delakoa hautsi badugu barkamena -ez etorri gurera dirutan ez daukagu eta- eskatzen dugu.